

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jakinaraztea hasi dela preskribatzeagatik, kontabilitateko bikoiztasunengatik, kontabilitate akatsengatik edo beste arrazoi batzuegatik aitortutako obligazioak baliogabetzeko espedientearen entzunaldiko izapidea

Alkatearen 2026ko martxoaren 5eko 53/2026 Ebazpenaren bidez, honako hau onetsi da:

2013ko ekitaldiari dagozkion itxitako ekitaldietako obligazio aitortuen saldoak berrikusi dira. Dekretu honen ebazpen zatiko taulan agertzen diren obligazio aitortuek osatzen dituzte saldo horiek.

2012an aitortutako obligazioak dira, eta, horiek aztertuta, egiaztatu da ez dagoela preskripzioa eten duen gertakaririk.

Komenigarria eta egokia da ordaintzeke dauden obligazioei aurrekontuan eta kontabilitatean baja ematea, aurrekontuan eta kontabilitatean udalaren ekonomia, finantza eta aurrekontu errealtatearen irudi fidela islatzeko.

Espedientea jendaurrean jarri eta entzunaldia eman behar da hogei egun baliodunez, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83.2 artikuluan xedatutakoarekin, interesdunek alegazioak edo erreklamazioak egin ditzaten eta banakako jakinarazpenak egin daitezen. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da ALHAOn,

XEDATZEN DU

LEHENENGOA. Espedientea entzunaldiko izapidera eramatea, bertan agertzen diren interesdunei jakinarazpena bidaliz, gehienez ere hogei egun balioduneko epean agertu eta beren eskubideen alde egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hauek dira eragindako hirugarren pertsonak, aurrekontu partidak eta zenbatekoak:

1. Goitibera (G48231575). Aplikazioa: 2013-45176-628. Espedientea: 2013/1 faktura erregistroa. Deskribapena: "Goitibera" Urteko kuota. Zenbatekoa: 35,00 euro.

2. Administrador de Infraestructuras Ferroviarias ADIF (Q2801660H). Aplikazioa: 2013-511-200. Espedientea: 2013/2 faktura erregistroa. Deskribapena: Errenta erregularizatzea 2013/01/01etik 2013/12/31ra. Zenbatekoa: 12,60 euro.

3. Gurbisa Servicios Auxiliares SL (B95379681). Aplikazioa: 2013-43265-222701. Espedientea: 2013/3 faktura erregistroa. Deskribapena: komun publikoak garbitzea 2013ko urrian. Zenbatekoa: 1.277,78 euro.

4. Gurbisa Servicios Auxiliares SL (B95379681). Aplikazioa: 2013-42209-222701. Espedientea: 2013/4 faktura erregistroa. Deskribapena: Tantaka haur eskola garbitzea 2013ko azaroan. Zenbatekoa: 924,85 euro.

5. Gurbisa Servicios Auxiliares SL (B95379681). Aplikazioa: 2013-43265-222701. Espedientea: 2013/5 faktura erregistroa. Deskribapena: komun publikoak garbitzea 2013ko azaroan. Zenbatekoa: 1.277,78 euro.

6. MABI (14194466Q). Aplikazioa: 2013-44170-627. Espedientea: 13129M303. Deskribapena: ur sarea berritzeak eragindako lursailen aldi baterako okupazioagatiko eta bide zortasunarengatiko kalte ordainak (P11p117). Zenbatekoa: 53,90 euro.

7. JRIB (30579894Z). Aplikazioa: 2013-44170-627. Espedientea: 13129M303. Deskribapena: ur sarea berritzeak eragindako lursailen aldi baterako okupazioagatiko eta bide zortasunarengatiko kalte ordainak (P11p117). Zenbatekoa: 53,90 euro.

8. FIB (30589981G). Aplikazioa: 2013-44170-627. Espedientea: 13129M303. Deskribapena: ur sarea berritzeak eragindako lursailen aldi baterako okupazioagatiko eta bide zortasunarengatiko kalte ordainak (P11p117). Zenbatekoa: 53,90 euro.

9. JJIB (24407272V). Aplikazioa: 2013-44170-627. Espedientea: 13129M303. Deskribapena: ur sarea berritzeak eragindako lursailen aldi baterako okupazioagatiko eta bide zortasunarengatiko kalte ordainak (P11p117). Zenbatekoa: 53,90 euro.

10. MAIB (30596535A). Aplikazioa: 2013-44170-627. Espedientea: 13129M303. Deskribapena: Ur sarea berritzeak eragindako lursailen aldi baterako okupazioagatiko eta bide zortasunarengatiko kalte ordainak (P11p117). Zenbatekoa: 53,90 euro.

11. HB (X3771735B). Aplikazioa: 2013-31311-480. Espedientea: 12122G9200. Deskribapena: jabeen erkidegoko gastuak ordaintzeko laguntza, 2013ko urtarriletik abendura, eta oinarrizko beharretarako laguntza (13/489G Dekretua). Zenbatekoa: 5.245,00 euro.

BIGARRENA. Espedientea entzunaldi izapidera eramatea, ALHAOko iragarki bidez, interesdunek gehienez ere hogeit egun balioduneko epean agertu eta beren eskubideen alde egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Amurrio, 2026ko martxoaren 17a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA